

## QUMRAN'GO ESKU-IDAZKIAK

## XII GORAPEN-ABESTIA

## VII SORTA

<sup>1</sup>Bildotsa lez isildu nintzan ni.

<sup>2</sup>Nire besoa atarata geratu zan nire soin-enborretik eta onen latzaiketatik;

<sup>3</sup>nire oiña zingara sartuta egoan, eta nire begiak, gaiztakeria ez ikusteko itxita; nire biotza arrituta, Bellal'gandik etorren asmo gaiztoaren aurrean.

<sup>4</sup>Aren izakerea agertzen zanean, etxeko ondopeak astindu eta nire azurrak banandu egiten ziran. Nire erraiak, itsasontzia ekatxaren erdian lez ikaritzen ziran.

<sup>5</sup>Nire biotzak dardar egiten eban ondapenaren aurrean; galdutzat jotzen neban nire burua, guztia yatan naaste-eragille, eta aren pekatua ondapen-bide.

## XII GORAPEN-ABESTIA

<sup>6</sup>Eskerra emoten dautsudaz, Jauna, zeure indarrak eutsi daustazulako,

<sup>7</sup>eta, koloka egin ez dagidan, zeure espiritu santua isuri dozu nigan. Sendotu egin nozu dongakeri-epailleen aurrean.

<sup>8</sup>Arein azpikeriak arren, ez dogu lateku nik adorea galtzerik, ezta zure Alkartasunari uko egiterik be. Bestetara baiño: nitzaz torre sendoa egin dozu, ormatzar garaia.

<sup>9</sup>Nire etxea arkaitzean jarri dozu eta nire aziak ondope betikoen gaiñean. Nire ormatzar guztiak ezek ezin astindu aal izango dauzan zutabe gogorrez izan dira sendotuak.

<sup>10</sup>Zuk, ene Jainko orrek, orbela lez jarri dozu santutasun-batzarraren aurrean. Iraunkor egin dozu nire biotza zure itunpenean, eta nire miiña zure irakatsietan.

<sup>11</sup>Ez dago barbarik espiritu ondatzaillearen agoan. Zure miiñari ez yako erantzunik bururatzen. Erru-sumeentzat, mututasuna. Ezpan guzurrezkoak dira. Auzian nire erasotaille guztiak galduko dozuz. Zintzoaren eta gaiztoaren arteko amildegi-munarra izango naz ni.

<sup>13</sup>Izan be, ezagutzen dozu Zuk egitada bakotxeko moldea,

banantzen dozu Zuk erantzun bakotxeko egitasuna. Nire biotza Zeugaitik dago nasai;

<sup>14</sup>zeure egiaren indarrak sendotzen dozuz nire oinkadak

zuzentasunaren bide-zidor gatxetan, biziaren lurraldeariño zeure aurrean ibili naiten

<sup>15</sup>aintzaren zidorretatik, iñoiz be txikiagotzen ez dan garaipenaren zidorretatik.

<sup>16</sup>Ezagutzen dozu Zuk zure morroiaren izakerea. [Zeuri oratzen dautsut...] [...]

<sup>17</sup>[...] gordelekua zeure indarrean billatzeko, gizonagan niretzat euskarririk ez dago-ta;

<sup>18</sup>ez dago [zapaltzailleakandik] askatzeko itxaropenik.

Atzeraka egitea [...]

Nik zeure agiari oratzen dautsat.

Zeure maitesarre ugarian dot ustea.

<sup>19</sup>Zeuk eragiten dautsazu aurrera biziari eta azierazoten dozu kimu barria.

Zeugandik ataraten dabe euren indarra [maastiko] aienbegiak.

Zeugan jarri daike ustea edonok.

<sup>20</sup>Zeure itunpeneri oratzen dautsat.

Zeuk diñozunari itsasten nakio.

Biotz-bigun diranen semeentzako aita izentatu nozu;

<sup>21</sup>berba egiteko gauza diranen irakaslari.

Bularreko batek amaren bularretaruntz lez makurtu euren agoa,

azten dabezanen altzoan ume batek lez.

<sup>22</sup>Geitu egin zenduan nire indarra ni zemaitzen nenduenen aurka.

Banandu egin zenduan nire aurka alkar bat egiten ebenen taldea.

<sup>23</sup>Nire aurkako guzurkideak lastoa aizearen aurka lez ziran.

Nire indarrak burdiñazko estunak lez estutzen eban gaizkilleen [iztarria]

Zeuk, ene Jainko orrek, emon zeustan indar ori,

Zeuk sendotu zenduan nire espiritua.

<sup>24</sup>Goian egiten dau dizdiz Sabbateko (Zapatuko) argiaz zure aintzarako.

<sup>25</sup>Bai, Zu niretzat betiraun-argia zara,

Zeuk egin zenduan paradisuari dizdiz egiten dauan argia.

<sup>26</sup>Oraindiño be, bearbada [...]